



Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria
2018ko apirila · 338. alea

TOKIKOM

A high-angle photograph of a group of five children and one adult climbing a set of wide, grey stone stairs. The group is moving from the top of the stairs towards the bottom. The children are wearing colorful clothing and backpacks. The adult is at the top of the stairs, wearing a blue jacket. The scene is brightly lit, casting long shadows on the steps.

**Eskolara
oinez
joateko
ekimena**



AURKIBIDEA

- 4 Bote prontuan** Ander Oñate
- 6 Begira** Gereziendoa
- 8 Zer berri** Aktualitateko albisteak
- 14 Argazki bidez** Boxeo gaua
- 16 Plazan Bazan** Umeendako jolasak
- 20 Erreportajea** Eskola Bidea
- 24 Kirola** Alejandro Rodriguez Memoriala eta Denis Soriano
- 26 Kultura** Biraka eta txistulari topaketa
- 28 Nondik nora** Isabel Moran Cañuelo
- 30 Gure artistak** Nuria Muro
- 32 Sakonean** Aurea Etxaniz Beitia
- 34 Zerbitzuak** Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak...

Iritzia

- 3 Neuretik** Elene Alberdi *Bestelako notak*
- 18 Gutunak** Korner Morea eta Iñigo Uribe txeberrria
- 18 Hausnarketa** Gaztetxearen etorkizuna
- 19 Puntua** Cris Jacas *Klik Eguna*



Pil-pilean
herri komunikabidea

Aldizkaria **ASKOREN ARTEAN** egiten dugu. Bidali zure iritzia, informazioa edo proposamenak: aldizkaria@pilpilean.eus • 605 706 086

Argitaratzailea

Pil-pilean Euskaldunon Elkarte
Errabal kalea 15-1, PK 27
20590 Soraluze
Telefonia 943 75 13 04

Erredakzioa

Ubane Madera
ubane@pilpilean.eus
Egoitz Unamuno 605 706 086
egoitz@pilpilean.eus

Publizitatea

publizitatea@pilpilean.eus
Diseinua Goiena,
Oier Larreategi (moldaketak)
Azala Fernan Oregi

Maketazioa

Oier Larreategi
Zuzentzailea Leire Ginea
Inprimategia Gertu Koop.
Banaketa
Pil-pilean Ekoizpena

Lege Gordailua:

SS-537-2000

Tirada: 2.100 ale

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Abundia



**SORALUZEGO
UDALA**

Bestelako notak



**Elene
Alberdi**

Gelako irribarrerik ederrena duzu, bikain; haur zoriontsua zara, bikain; errespetuz jokatzeko duzu, bikain; lagun ona eta adeitsua zara, bikain. Tankera horretako kalifikazioak jarri dizkie Sevillako irakasle batek 9 urteko ikasleei. Aste Santuaren aurretik jaso ohi dituzten noten buletinean, matematika, natura-zientziak, hizkuntza eta gainerako ikasgaiei dagozkien notez gain, “bestelako nota” horiek nabarmendu nahi izan ditu Ramon Rodriguezek. Albistea bolo-bolo hedatu da duela gutxi sare sozialetan, eta horren berri izan nuen neuk ere.

Antza, adimen emozionala lantzen jardun du urteotan

“Haur bakoitzaren gaitasunei erreparatu eta hoiek nabarmendu ditu”

Rodriguezek. Eta bide horretan pausu bat aurrera eman nahi izan du. Nire uste apalean, baita lortu ere. Haur bakoitzaren gaitasunei erreparatu, eta horiek nabarmendu ditu. Hartara, ikasle guztiek dituzte “bikainak”; guzti-guztiek, baita nota eskasak, edo bestelako zailtasunak dituzten umeek ere. Norbere buruaz

harro sentitzeko aitortzak, txikiak izan arren, onuragarriak dira, oso. Gainerako ikaskideekin “parteka” daitezkeen kalifikazioak dituzte, ezberdinak eta onak direlako. Izan ere, norbanakoa “bakarra” da, aparta, berezia zerbaitean. Eta hori bultzatzea izan beharko litzateke, hain zuzen, hezkuntzaren oinarria.

Duela gutxi gogora ekarri zidaten elezahar bat: Baso batean bizi ziren animaliek eskola bat eratu zuten. Igo, igeri, korrika eta hegan egin; lau ikasgai horiek gaingiditu behar zituzten. Ahatea oso trebea zen igerian, irakaslea baino askoz hobea; hori bai, hegan erdipurdi ibiltzen zen, eta “nahiko” atera zuen. Korrika, berriz, ez zen iaioa. “Gutxi” jarri ziotenez, asko ahalegindu eta entrenatu behar izan zuen gaingiditzeko. Azkenean, baina, hankak izorratu eta igerian ere trakets egin zuen. Erbia berriz, bikaina zen lasterketan, baina nerbioek jota, eskola utzi behar izan zuen, ezinezkoa baitzizaion igeri egitea. Katagorria abila zen zuhaitzak igotzen. Arazoa ordea, hegan egiteko garaian zegoen. Gai zen adar batetik bestera hegan egiteko, baina irakasleak erre eta erre, lurretik hasi behar zuela. Katagorri gaixoa, neka-neka eginda, nazkatuta, amaitu zuen. Eta aingira ona zen igerian, eta hala moduzkoa gainerako ikasgaietan. Eta berak lortu zuen batezbestekorik onena. Aingira zen, hortaz, ikaslerik onena.

Ados al zaude? Norbera ona den horretan sakonduta, ez al ziren guztiak apartak izango?

Ander Oñate

TESTUA: **EGOITZ UNAMUNO** ARGAZKIA: **FERNAN OREGI**

Ander Oñate “Limoi” lorazaina da eta bere kontura egiten du lan *Lemon lorezaintza zerbitzuan*. Orain dela urte batzuk Arkauteko nekazaritza-eskolan ikasi zuen lorazain ofizioa eta geroztik horretan dihardu, bere lanarekin “maiteminduta”.

Uste du herrian bestelako kultura bat behar dela eremu berdeak eta zuhaitzak hobeto kudeatzeko.

Zergatik erabaki zenuen lorezaintza ikastea?

Tailerra ez zitzaidan gustatzen eta nahiago nuen ikastea naturarekin zerikusia zuen zer edo zer. Horregatik eman nituen bi urte Arkauteko nekazaritza-eskolan.

Zer ikasi zenuen han?

Gogoan dut bereziki estutu gintuztela fruta-arbolen gaineko kontuekin. Erakutsi ziguten gauzak kurioso egiten. Adibidez, frutak batzerakoan kontu handia izaten, adartxoa hautsi barik batzen. Orduan konturatu nintzen zuhaitzei egiten dizkiegun kalteez.

Adibidez?

Oso garrantzitsua da zuhaitzak dagokien sasoiaren inaustea eta inausi beharreko adarrak ongi aukeratzea. Oso lan polita da, naturaren erritmora zoazelako. Fijatzen zara landareen prozesuarekin, urtaroeekin. Ikasten duzu zuhaitzen berri: zela zaindu behar diren, zela kimatu, zela hartzen duten min... Horrela ikasi dut zuhaitzak errespetatzen.

Zuhaitzei garrantzia handia ematen diezu?

Jendea, orokorrean, ez da fijatzen zuhaitzetan. Baina begira Estazioko arbolari. Atera zenuten Pil-pileanen argazki on batekin eta informazioarekin, eta orain jendeak badaki likidanbarra dela eta konturatzen da arbola hori zein ederra den, eta zein garrantzitsua.

Zuhaitzak oso garrantzitsuak dira. Denok dakigu zer sentitzen den arbola handi baten azpian jartzen zarenean. Sorraluzen eremu berdeen eta zuhaitzen inguruko kultura indartu behar genuke eta duten balioa eman.

Uste duzu ez zaiela ematen behar besteko baliorik?

Herrigunean ez dago zuhaitz bat ganorazkoa, hazten laga zaiona. Hamabost urtean ez zaie kasurik egiten, lagatzen dira hazten eta gero erabaki drastikoak hartu behar izaten dira; orain dela aste batzuk Kalongeko aginarekin egin zen bezala, ondotik moztuta; edo lehenago Mendiola industrialdeko zuhaitz ederrekin egin zen moduan; edo herbizida hilgarriak erabilia. Iritzi bat da, baina uste dut askotan gauzak ez direla ondo egiten. Naturari lagundu egin behar diogu eta ez kontra egin; ze hortik datoz gero arazoak.

Zure ustez zer egin behar litzateke?

Herriguneko eremu berdeen kudeaketa-plan sakonagoa behar da herrian, gauzak logika batekin egiteko. Gure herrian lau edo bost eragilek jarduten dute lan berean, interbentzio puntualak eginez eta horrela oso zaila da epe luzerako ikuspegiarekin lan egitea. Nik ulertzen dut Udalak horrela jokatzeari, baina, beharbada, beste modu batean egiteko aukera planteatu beharko luke, emaitza hobea izan dadin. Lorategian egin nahi duzuna aurrez ondo planifikatuz gero, lanaren erdia baino gehiago aurrezten da.

Herri guztietan dago lorezaintzan dakien brigada edo ekipoa. Begira Eibar zelako zuloa den baina zela dauden zainduta bertako lorategiak.

Jo duzu udaletxera?

Ni joan nintzen udaletxera nire kexa adieraztera eta nire proiektua ere aurkeztu nuen ideia batzuekin. Nik ez dit hori bera egin behar denik, baina Udalak gai honi arreta handiagoa eskaini behar lioke. Eta berdin dit agintean zein dagoen. Ikusten dudanak min ematen dit eta horregatik ematen dut nire iritzia, zeozer hobetzeko balioko duelakoan.

Zein dira ideia horiek?

Hemen herriguneko eremu berdeei begiratzen diegu leku zikinak balira moduan, baina behar den moduan zainduz gero, toki zoragarriak jarri litezke herrian, bertan jendea gustora egon dadin. Lau elementurekin sortu litezke inguru ederrak. Hortik doa Estazioko parkearen filosofia eta asko gustatu zait. Herrian egin daitekeenaren adibide bat baino ez da. Hor daude San Andresko eta Ezoziko parkeak ere.

Jardinetan jar daitezke fruta-arbolak edo ortu komunitarioak inguruko zelaietan. Ortueta giro zoragarria sortzen da jendearen artean eta herri askotan dihardute halako egitasmoak bultzatzen. Gakoa da belaunaldi berriak inguruarekiko harremanean haztea, ikastea, bai eskolaren bitartez eta bai eskolatik kanpo.

Etorkizunean lorezaintzan jarraitzeko asmoa duzu?

Bai. Nire ilusioa da diseinuak egitea, maiteminduta nago nire lanarekin. Permakultura ikasten ere badihardut, proiektu jasangarriagoak egiten ikasteko.


Sologoengo lorategian egin duzu...

Bai, zentralako lorategian ordu pila bat sartu ditut. Lanetik ateratzerakoan hantxe bakartzen nintzen. Ikasitakoak hantxe jarri nituen praktikan. Orain, San Andresen ere ahaleginduko naiz.



**“Eremu berdeen eta
zuhaitzen inguruko
kultura indartu
behar genuke
herrian eta duten
balioa eman”**

ANDER OÑATE



Gereziendo bitxia

ARGAZKIA: FERNAN OREGI
TESTUA: UBANE MADERA

Soraluzen dauden zuhaitz berezien artean, Arraikua kaleko parkean dauden bi benetan deigarriak dira. Udaberriaren etorrerarekin batera erakusten dute berezitasuna: enbor beretik irteten diren adar batzuek lore arrosak ematen dituzte eta beste adar batzuek, berriz, lore zuria. Bata bestearen ondoan daude, eta, izatez, bi zuhaitzak dira gereziendoak, parkea inguratzen duten gainontzeko guztiak bezala. Naiara Elgetak, Belarrak lore-dendako ugazabak, azaldu digunez, “bi horiek, baina, aparteko txertaketak dituzte; berezkoak edo artifizialak, baina bi motako gereziendoren adarrak dituzte. Gereziak ematen dituzten parkeko zuhaitz bakarrak dira”. Eta gereziak ematen ez dituzten gereziendoak japoniar jatorrikoak dira. Halakoak dira Arraikua parkea inguratzen duten lore arrosadunak. Bide batez, gereziendoak lorean daudenean udalerriko parke ederrenetakoa da Arraikua kalekoa.





Eskualdean gutxien birziklatzen duen bigarren udalerrria da Soraluze

Udalerrrian hondakinak batzeko edukiontzi-sistema aldatu zenetik (urtarriletik), datuek hobera egin eta hondakinen %46,46 batzen da sailkatuta Soraluzen. Otsailera arteko datuek erakusten dutenez (Debabarreneko Mankomunitateak dituen azkenak), bada, hamar puntu egin du gora birziklatze-tasak; izan ere, iaz portzentaje hori %36,70ekoa izan zen.

Debagoienean %80 pasa Berez, Europako legediak birziklatzearekin lotuta zehaztutako helburu orokorretik (%50) gertu dago Soraluze. Baina, hobetzeko bide luzea dauka oraindik. Debabarreneko Deba eta Mutriku udalerriek, adibidez, erakutsi dute posible dela hondakinen %60a sailkatuta batzea. Eta zeresanik ez Debagoieneko udalerriek. Haiek erakutsi dute posible dela %80ra iritsi eta baita hori gainditzea ere, edukiontzien sistema baliatuta.

Soraluze okerrenen artean Gaur gaurkoz (otsailera arteko datuen arabera), Soraluze da Debabarrenean birziklatze-tasarik baxuena duen bigarren udalerrria (iaz tasarik baxuena zuen). Hain justu, Ermua da, azken datuen arabera, tasarik baxuena duena, baina antzinako edukiontzi-sistemearekin funtzionatu du orain arte; justu maiztean ipiniko dituzte berriak Ermuan, beraz,



Denetarikoa hondakinak edukiontzietatik kanpo, oraingo astean bertan.

pentzatzekoa da hango datua ere hobetu egingo dela, eta azken urteotako joerari eusten badiote, baliteke Soraluzeko tasa gainditzea.

Oraindik txartelak hartzeke Soraluzeko datuen konparatiba eginez, 2018ko otsailean Soraluzen 21.891 kilo organiko batu dira (%18,18); iazko urtarrilean 19.227 kilo batu ziren, eta iazko azaroan, aldiz, 16.776 kilo.

Errefusari begiratzeko badiogu, 2018ko otsailean, 59.109 kilo errefusa batu dira; iazko urtarrilean 79.238 kilo eta iaz azaroan, 74.203 kilo.

Beraz, esandakoa: gutxi bada ere, datuak hobetu egin dira zertxobait. Hori bai, gainditu beharrekoen artean, sailkatuta bideratzen den

hondakin-kopurua handitu beharraz aparte, bada kontuan hartzeko beste kontu bat: edukiontziak erabiltzeko ehun txartel baino gehiago hartu barik daude oraindik. Udaletxean eskuratu behar dira, Ingurumen teknikari Nekane Jauregirengana joanda.


Hondakinen sailkatze datuak

Hilabetea	Errefusa (kg)	Organikoa (kg)
2017 urtarrila	79.238	19.227
2017 otsaila	74.203	16.776
2017 abendua	69.338	20.633
2018 urtarrila	69.033	21.611
2018 otsaila	59.109	21.891

ITURRIA: DEBABARRENA ESQUALDEKO MANKOMUNITATEA


Birziklapena ehunekotan

ITURRIA: DEBABARRENA ESQUALDEKO MANKOMUNITATEA



2017 urtea
2018 otsailera arte

“25 bat eragilerekin izango gara asteotan”



Oier Gabiria eta Maider Urbieta Soralezeko Udalean erabiltzen duten bulegoan..

Legazpiko Lorratz Elkarteko gizarte hezitzaileak dira Oier Gabiria (Legazpia, 1990) eta Maider Urbieta (Zumaia, 1992). Martxoaren 5etik Udalean dira, Soralezeko 0-16 urte bitarteko haur eta nerabeen beharren diagnostikorako prozesua lantzen, Udaleko Osasun, Gizarte Ongizate eta Inmigrazio Batzordearen eskutik, Haur eta Gazte Batzordearekin elkarlanean.

Zein puntutan dago prozesua?

Lau fase ditu eta lehena bukatu dugu: dokumentazio teorikoa, legeek zer dioten, Soralezek zer zerbitzu dituen... jaso dugu; ikusteko zein den errealitatea, gero azterketa egiteko.

Ondoren?

Bi hilabeteotan, kontuan hartuta haurrek eta nerabeek bost arlotako beharrak dituztela (fisikoak, sozialak, kognitiboak, segurtasunerakoak eta emozionalak), haurrekin eta nerabeekin, eurekin harremana duten eragileekin eta profesionalekin, familiarekin hitz egingo dugu, haiek izan ditzaketen hutsuneak eta indarguneak detektatzeko.

Adibidez?

Arlo emozionalean, adibidez, ba ea gurasoek nahikoa denbora duten

haurrekin egoteko; edo lan ordutegiak nahikoak badiren gurasotasuna eta haurren zaintza ondo egiteko; edo jatorri desberdinetako haurrek zelako elkarbizitza duten...

Zenbatekin egongo zarete?

25 baten zerrrenda dugu. Ahal badugu guztiekin egongo gara: ikastetxeak, guraso elkarteak, aisialdi taldeak, udal teknikariak... Eta gurasoekin, haurrekin eta nerabeekin ere bai.

Eta laugarren fasea...

Txosten batean guztia jaso eta Udalean aurkeztuko dugu: zein gabezia eta indargune dauden, aholkuak edo gomendioak. Gero Udalak hartuko ditu erabakiak.

Beste inon egin duzue halakorik?

Legazpian, iaz. Baina hemen Legazpin 5-11 urte bitarteko haurrekin egin genuen. Han, adibidez, ikusi zen gabezien arten garrantzitsuak zirela ludoteka bat sortzea eta haurrentzako babes-sistema hobetzen jarraitzea.

Bestetik nahi baduzue esan...

Garrantzitsua dela parte-hartzea. Guztien iritzia da inportantea eta ahalik eta gehien jasotzen ahaleginduko gara.

24 lagunendako ikasgela, gertu



Gaurtik, apirilak 27tik, erabilgarri dago Soralezeko Udaleko Hezkuntza Batzordeak herritarrendako egokitu duen ikasgela. “Orain arte herriko liburutegia zen ikasteko zegoen toki bakarra, baina liburutegiak ez ditu ikasleek ikasteko orduan dituzten premiak behar den moduan asetzen; batetik, duen ordutegia eta egutegia mugatua direlako, eta, bestetik, ikasteko behar den erabateko isiltasuna ez duelako bermatzen”. Hori eta herritarren eskaerak abiapuntu, orain arte KZGune modura erabili den lokala (Baltegieta kalea, 18 behea) ikasgela bilakatu du Udalak, egokitzen txiki batzuk eginda. 24 lagunendako lekua du, ordenagailuak konektatzeko aukera dago baita Wifi konexioa ere. 365 egunean izango da zabalik, 08:00etatik 22:00etara. “Zerbitzua unibertsitate-mailako ikasketak edota goi-mailako heziketa zikloak egiten diharduten 18 urtez gorako herritarrek erabili ahal izango dute, baita oposaketak, graduondoko ikastaroak zein masterrak prestatzen ari direnek ere”. Hori esplikatu dute Udaletik. Zerbitzua erabiltzeko beharrezkoa izango da txartel elektronikoa eskuratzea; horretarako, izena eman beharra dago Udaleko Arreta Bulegoan. Txartela zein zerbitzua bera doakoak dira.

Bizikidetza Jardunaldia izango da Herri Antzokian, Paul Rios hizlari dela

Maiatzaren 15ean, martitzena, Bizikidetza Jardunaldia izango da Herri Antzokian. Bideo emanaldia eta solasaldia izango dira jardunaldi horren baitan, 19:00etan hasita. Hala, batetik Ipar Irlandako gatazka eta han bake prozesua zela gauzatu den erakutsiko dute In Dialogue izenburua duen dokumentala baliatuta. Eta horren ondoren, gaiaren inguruko solasaldia izango da, bakearen eta giza eskubideen aktibista eta Lokarriko koordinatzaile ohi Paul Riosekin.

Bi urteko lana

“Legealdia hasi genuenetik, Udal Gobernuak erabaki zuen Bakearen eta Bizikidetzaren inguruko lantaldea eratzea Udalean bertan, aipatutako gaak lantzen joateko. Horretarako Baketik Fundazioaren laguntza izan dugu azken urteotan burutu ditugun bilerak



Paul Rios bakearen eta giza eskubideen aktibista.

koordinatzeko eta dinamizatze (hilerok biltzen gara). Udalean ordezkaritza dugun alderdiok orain arte kanpora begira egin ditugun adierazpenak Azaroaren 10aren bueltan, Memoriaren Egunaren

harira adostutakoak izan dira. Hori horrela, bi urte luze hauen ondoren egindako lana kaleratzeko ordua dela pentsatu dugu”, esplikatu dute Soraluzeko Udaletik maiatzaren 15eko jardunaldiari buruz.

Mendi-gaineko zati bat hesiz babestuko dute, motorzaleengatik

Asteotan beste hesitura bat ipiniko dute mendi-gainean, zutarri inguruan. “Motorzale okupa basati horiek zutarri ondotik ibiltzen direnez, eta nahiz eta salaketa asko jarri agintarietara ezer egiten ez dutenez, lur zati handi bat ixtea erabaki dugu. Azkenean dena hondatu eta bota egingo dutelako. Orain ixtea erabaki duguna baino gehiago ixtea zen gure asmoa; une honetan, baina, argazkiko zatia itxiko dugu bakarrik”. Berba horiekin esplikatu dute mendi-gaineko lurren 28 hektarearen jabe diren Martin eta Julian anaia osintxuarrek zutarri (menhir) ingurua ixteko erabakia.



Zutarria hesiz inguratuko dute, inork bota ez dezan.

KLIK Eguna, erabakitzeko eskubidearen aldeko jaia



Kokein musika talde eibarrak kontzertua eskainiko du Klik Egunean.

Klik Eguna antolatuta du Soraluzeko Gure Esku Dagok maiatzaren 12rako. Ekainaren 10ean Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hiriburuak lotu nahi dituen giza katearen aurrekaria izango da.

Soraluzeko Gure Esku Dagok egun osoko egitaraua antolatuta du “adin guztietako soraluzetarrei begira eta ilusioa pizteko helburuarekin”. Klik Eguna deitu diote, erabakitzeko eskubidearen jaia elkarrekin ospatuz, herritarren parte hartzearekin euren buruetan erabakitzeko beharraren klika egin dezaten nahi dutelako. Gure Esku Dagoko kideen ustez, erabakitzeko eskubidea, “epe luzera begira, bizikidetzarako ezinbesteko tresna da, eta etorkizunean tresna hori baliatu ahal izateko bidea jorratzen segitzen dugu, guretzat eta gure ondorengoentzat nahi dugun etorkizuna eraikitzen”.

Horrekin batera, erabakitzeko eskubidearen alde egingo den 202 kilometroko giza kateari herrian “bultzada handia emateko” ere antolatu dute eguna. Izan ere, ekainaren 10ean Soraluzeko Gure Esku Dagok 500 herritar mobilizatu nahi ditu Soraluzetik Elgoibarrera, han giza katea parte hartzeko.

Egun osoko egitaraua

Egitaraua goizean hasiko da kalez kale egingo den herri-ginkanarekin: “ume, heldu eta nagusiek parte hartzeko moduko probak izango dira”. Bitartean, Katuska klowna ibiliko da girotzen. Eguerdian, herri-bazkaria egingo da Zubi Nagusian (euria bada, kiroldegiko frontoian), bazkalondoko kantu-saio eta guzti. Txartelak salgai daude Iratxon, Arranoan, Batzokian eta Bolian, maiatzaren 6ra arte.

Iluntzetik aurrera

Arratsaldean, 19:00etatik aurrera, Lesakako Elutxa txaranga ibiliko da giroa berotzen, eta, zubian, pintxoak eskainiko dituzte, goizetik erretzen jarriko duten txerriarenak.

Gauean, berriz, 10:30etik aurrera, musika-jaialdia hasiko da, talde ezagun askoekin. Bertan izango dira: La Furia (rapeatzaile feminista nafarra) Kokein eta Deus ez (rock-talde eibarrak).

Bestalde, eguneko gastuak finantziatzeko, egunean zehar mahaia jarriko dituzte kamisetak erosi edo ekainaren 10eko giza katerako izena emateko. Horrekin batera, txosna jarriko dute zubian eta Gaztetxea ere zabalik izango da.

Txakurrendako parkea zabalik

Joan den astetik, zabalik da Atxuri kalean egokitu duten txakurrendako lehen parkea. Haiek solte ibil daitezzen hainbat herritarren eskariak aintzat hartuta, 3.000 euroko inbertsioa egin eta Udalak 500 m²ko espazioa txukundu du eta txakurrendako bi jostailu ipini ditu bertan. Oinarrizko arauak errespetatuta, ordu-muga bako parkea da.

Nafarroara txangoa

Maiatzaren 9an Nafarroara irteera egingo dute Itxaropena elkartearrekin eskutik. Asmoa da Zugarramurdiko museoa eta kobak bisitatzea, Zugarramurdi bera ere ikustea eta ondoren, Zugarramurditik gertu dagoen Doneztebeko Santa Maria jatetxean bazkaltea. Iragarri dutenez, gainera, bazkalostean dantzaldia izango dute. Maiatzaren 8a da txango horretarako izena emateko azkeneko eguna.

40 euro ordaindu eta 50 euro gastatu

Maiatzaren 7tik 16ra Bizikale elkateko saltokietan eta tabernetan gastatzeko bonoak salduko dituzte Mapfren (09:30-13:30 eta 16:00-19:00). Bono bikoitzak izango dira, 25na eurokoak. Bestela esanda, 40 euro ordainduta, 50 euroko gastua egin ahalko da, 25 euroko bono bikoitz horiek erabilia. Asko jota, pertsona bakoitzak bono bikoitz bat eskuratu ahalko du.

Landarezaintzan "triskantzak" egin izana salatu du EH Bilduk

EH Bilduko udal ordezkariak kritika egin dio EAJk eta PSE-EEK osatutako Udal gobernuari landareen zaintzaren harira egin duen jardunarengatik. Oposizioko alderdiko kideen ustez, "alkateak hartu du lorezaintzako eta parkeetako gidaritza zuzena. Ondorioak ez dira batere onak. Hor daude Txurruken eta poligonoan egindako triskantzak", hala salatu zuen Roke Akizu zinegotziak Ingurumen eta Landa Garapeneko batzordean.

Babestutako espeziea

Baina bereziki kritikatu zuen frontoiko gune berdean hagin bat moztu izana. Akizuk salatu zuenez, "frontoiko parketxoan, alkatearen aginduz eta bere gidaritzapean, espezie mehatxatuen euskal

katalogoan dagoen interes bereziko arbola bat moztu dute. Hagina zen arbola (tejo erdaraz) *taxus baccata* izen zientifikoa duena. Udal gobernuak onartutako Gizatasun Araudian (ordenanza de civismo), falta oso larri moduan dago sailkatuta jarduera hori. Herritar arrunt batek eginez gero 500-3.000 euro bitarteko isuna ordaindu beharko luke. Egin beharreko lanak denon artean adostea galdegiten dugu eta haginaren kasuan, bere erantzukizunari aurre egitea. Ezjakintasuna ez baita aitzakia".

Azalpenak batzordean

Gaiari buruz Iker Aldazabal alkateari galdetuta, hark esan du beharrezko azalpen guztiak emanda dituela, dagokion lekuan, Ingurumen batzarrean.

Futbol zelairako bidea argiztatuko dute



Hirukurutzetako biribilgunearen obrak amaituta, bertara egindako bisitan Bide Azpiegituretako diputatu Aintzane Oiarbidek jakinarazi zuen irailerako kale-argiak izango direla Ezoziko futbol zelairako bidean, LED argiteriarekin eta eguzki-plakekin elikatutakoak "efizientzia energetikoaren filosofiari eutsita".

Zentzu horretan Aldazabal alkateak adierazi zuen "albiste pozgarria" dela hori; batez ere "joan-etorrietan gure gaztetxoaren segurtasuna bermatzeko irailan martxan izango direlako kale-argiak eta zentzu horretan ere eskerrak eman nahi ditut, emandako hitza bete dutelako".

Irati Unamuno irabazle



Irakurri, gozatu eta oparitu ergitasmoaren erdibidera iritsita, lehen zozketa egin dugu, haurren artean. Irati Unamuno izan da, bada,

30 euroko txeke-oparia irabazi duena. Maiatzaren 31ra arte dago aukera parte hartzeko eta ekainaren 31ra arte, berriz, liburuak erosteko.

Irureko urak

Bestalde, Irure auzoko urak oraindik bideratu barik daudela-eta, EH Bilduk kritika helarazi zuen gai horrekin lotuta: "Foru Aldundiari exijitzen diogu bere hitza bete dezala eta, ezer larririk gertatu aurretik, autopistako uren kanalizazioen egoera eskasak Irureko auzoan sortzen dituen arazoei aurre egin diezaiola, obrak behingoz bukatuta". Gai horren gainean kazetarien galderei erantzunez, besteak beste, Oiarbide diputatuak jakinarazi zuen auzi hori epaitegietan dagoela eta epaiaren zain daudela, gatazka epaiketaren bitartez konpontzen ez bada, "behin betiko irtenbidea" eurek planteatzeko.

Auzoko Jaia, jatorri askotako herritarren topalekuen jaia, Soraluzen



laz Antzuolan egindako Auzoko Jaian ateratako talde-argazkia, udaletxe aurrean.

Euskara, aniztasuna eta herritarrak bere baitan batzen dituen Auzoko egitasmoak urteko ospakizuna Soraluzen egingo du aurten. 5. Auzoko Jaia izango da eta maiatzaren 5ean da hitzordua, 11:00-14:00 bitarte, Plaza Barrixan.

Jaiaren bidez, Gipuzkoako eta Arabako hamar herritan Auzoko egitasmoaren harira egiten duten lana ikusaraziko dute, eta parte-hartzaileak eta herritarrak elkartu eta “elkarrekin gozatzeko aukera” eman nahi dute.

Munduko jolasak, jakiak eta beste

Adin tarte guztietara egokitutako egitaraua osatu dute: munduko janariaren dastaketa, henna txokoa, tailerrak umeendako, kantuak eta elkar ezagutzeko jolasak. Plaza-dantzen saio batekin emango diote amaiera festari. Besteak beste, Marokoko, Pakistango, Senegalgo, Saharako... hizkuntzak entzun ahal izango dira.

Auzoko egitasmoan ohi den moduan, euskara erdigunean jarrita egingo dute Auzoko jaia ere, jatorri ezberdinetako hizkuntza eta kulturak ezagutzeko bidea emanez.

Euskarara gerturatzen

Soraluzerekin batera, Eskoriatza, Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Donostia, Ibarra, Oñati eta Gasteiz dira gaur egun Auzoko egitasmoa martxan duten herriak. Euskaratik urrun bizi direnak euskarara gerturatzeko helburuarekin, astero biltzen dira taldeak, ordu eta erdiz euskaraz aritu eta ongi pasatzeko.

Talde horietan ezinbestekoak dira euskal hiztunak ere, bidea egin nahi duten horiei lagundu eta, bide batez, elkarrengandik ikasteko. “Euskaraz bizi nahi badugu, ezinbestekoa baita herrietan dagoen aniztasuna ezagutu eta aitortzearekin batera, hizkuntza guztion esku jartzea”. Hori azpimarratu dute Auzoko egitasmoa sustatzen duen Euskaltzaleen Topagunetik.

Hizkuntzen basoa

Jaia girotze aldera, Hizkuntzen Basoa izeneko argazki eta poema erakusketa ikusgai izango da Kalebarreneko denda eta tabernetan.

‘Angula ustelak’ hitzaldia eskainiko dute eguenean



Ainhua Intxaurrendieta eta Iñaki Errazkin Madrilgo Kontu Auzitegian ari dira epaitzen 2013an errauste plantaren lanak eteteagatik. Bi auzipetuei elkartasuna adierazi eta kasuaren gaineko informazioa emateko, Gipuzkoa Zutik mugimenduak ‘Angula ustelak’ izeneko hitzaldi bira abiatu du Euskal Herri osoan zehar.

Maiatzaren 3an, datorren eguenean, Soraluzen eskainiko dute hitzaldia, arratsaldeko 19:00etan, Kontzejupean. Bertan, Ainhua Intxaurrendietak (auzipetua) eta Igor Meltxorrek (kazetaria) Zubietako errauste plantaren gaiaz eta auzipetzeaz berba egingo dute.

40 Milioiko kalte-ordain eskaera

2013an Iñaki Errazkin Ingurumen ditupatua zen eta Ainhua Intxaurrendieta GHK-ko lehendakaria, eta Zubietako errauste planta geldiarazteko akordioa sinatu zuten erraustegia egin behar zuten enpresekin. Akordio horretan jaso zuten proiektua bertan behera uztea, kalte-ordain baten truke. Orain, GHK-ko arduradun berriek salaketa jarri dute bi persona hauen kontra eta 40 milioi eurotik gorako kalte-ordainak eskatzen dizkiete, erabaki harek eragindako ustezko kalteengatik.

Kolpeak eta loreak

ARGAZKIAK: FERNAN OREGI TESTUA: EGOITZ UNAMUNO

1968an debutatu zuen Jose Manuel Ibar Urtain boxeolariak Ordiziako futbol zelaian. Segundu batzuk besterik ez zituen iraun borrokaldiak, KO bidez irabazi zuelako. Modu horretan, gainera, 27 garaipen lortu zituen segidan. Plazak aise betetzen zituen Urtainek, eta, berezkoa zuen erakargarritasuna lagun, boxeok gurean bizi zuen momentu onaren erakusle bihurtu zen.

Urte luzez izandako gainbehera aurkari hartuta, patuaren ringera igo da euskal boxeoa, suspertu eta garai batean gurean izan zuen sona berreskuratzeko. (Ruben Pascual, Gara 2016/10/08)

Suspertze horren adibideetako bat izan zen apirilaren 14an herrian antolatutako jaialdia. Egun horretan boxeok lauhun zaletu baino gehiago batu zituen herriko pilotalekuko harmailetan, eta are garrantzitsuagoa dena, boxeolariek zirrara eragin zuen bertan bildu ziren zaleengan eta gaualdia ek biribildu zuten Adur Odriozolak, Julen Gallastegik, Oussama Hinak eta Ixa Rodriguezen garaipenek.

Aurtengo udaberrian, zuhaitzekin batera, kirol zahar bat loratu da Soroluzen.





Egilea: Garbiñe Ubeda (Aiurri)

Soluzioak:

plazanbazan.eus/kioskoa/soluzioak

ELURRETAN

Bai dibertigarria elurra, ezta? Zoritxarrez, arriskurik ere badu. Hemen jolasean ari den bat, adibidez, hoztu eta gaixotu egingo da. Zein ote da? Ahoa zabalik du, eta lepoan bufanda. Badu zerbeit horia, baina gorriak ez, ezta ubelik ere. Badu zerbeit urdina, baina ez diru prakak. Eskuak libre dituen arren, badu elur bola bat menpean.



Gogoa non...

Jarraian zer daterren osatzen baduzu, esatera zihar ezagun bat osatuko duzu.

- Gogoa non, begiak zoro eta bihotza edonon.
- Gogoa non, zu beti bertan.
- Gogoa non, lagunik ezin aurkitu inon.
- Gogoa non, normaleki Amaraton.
- Gogoa non, poza beti da en.
- Gogoa non, lanak hor konpon.
- Gogoa non, zangoa han.

BEHIAK hitza osatzen duten hizkiak erabiliz, osatu ezazu SUDOKUA

Hizki bakoitzak behin agertu behar du letra, zutabe eta oroa bakoitzeko.

B	E	A	K
A	E	B	H
H	A	I	E
I	H	B	E
A	E	I	B
K	I		


BEHIAK

Asma ezazu mezu ezkutua. Esatera zihar bat da.

ABCDEFGHIJKLMNOPQRSTUVWXYZ


SUMENDIA

Ai ama! Sumendia lehertu da! Zein bide jarraitzen du lobok, tximiniatik gora ateratzeko?




PUZZLEA

Zein da puzzlea osatzeko behar dugun piezo?



Segundotxo bat...

Bi sekuntzia hauen artean segundu bakar bat besterik ez da pasa, baina gauza mordos gertatu da. Bilo itaztu bi irudien artean dauden aldeak.



“Angula Ustelak” hitzaldia eta Udalaren erantzun azkarra

Ainhoa Intxaurrendieta eta Iñaki Errazkinek emanak dituzte jada 30 bat hitzaldi Gipuzkoan zehar, Aldundian izan zuten esperientziari buruz. Bestek beste, ziurtatzen dute existitzen direla eskal “erregimena” eta “mafia”. Merez du hitzaldia entzutea.

Oraingoan, hitzaldia Soraluzen eskainiko dute. Bertan izango dira, Ainhoa bera eta Igor Melchor “El Periodista Canalla”. Maiatzaren 3an izango da, ostegunean, arratsaldeko 19:00etan, Kontzejupean (udaletxe azpian).

Eskerrak eman nahi nizkioke Iker Aldazabali, bere alderdiaren kontrako hamaika iritzi entzungo direla jakin arren, oztoporik jarri gabe, azkar eta ondo erantzun diolako hitzaldia egiteko beharrezkoak ditugun espazio eta materialen eskaerari.

Besterik gabe, den-denok zaudete hitzaldira gonbidatuta.
Iñigo Uribetxebarria

Terrorismoa Nafarroan borborka

Ez naiz Altsasuz ari. Epailleek baimentzen duten terrorismoaz ari naiz. Oraingoan Manada talde terroristaren biktimari tokatu zaio pairatzea bortxaketaren eta emakumeen kontrako indarkeriaren justifikazio sistematiko eta estruktural patriarkala. Ia bi urte eta gero, bortxaketa izan ez dela eta huskeria besterik ez diren zigorrak ezarri dizkiete.

Hau bai dela benetako abusua. Gure eskubideak bermatu behar dituzten horiek bortxatzaileen ekintzak babesten. Badirudi berdinen artean, batak bestearen bizkarra gordetzen dabiltzala. Terrorea zabaltzen laguntzen. Merke saltzen gaitu justiziak.

Ez dadila inor etorri berriz, mesedez, bortxatzaileen izenak eta aurpegiak ez zabaltzeko berriz eskatzen. Ez moralaren izenean, ez haien familien izenean. Nahikoa babesten ditu sistema judizialak. Ez

gaude prest, guk ere, hiritarrok, horrelako ekintza kriminalak ezkutatu eta ahaztu arazteko.

Ari izan, guk sinisten zaitugula. Eta horrelakoak kalean salatzen jarraituko ditugula. Behar den guztietan, kalera irtengo gara. Ez zaude bakarrik.

Korner Morea



aldizkaria@pilpilean.eus
helbidera bidali gutunak

HAUSNARKETA

Gaztetxea etorkizunean zertarako?

Gaztetxearen etorkizunaz hausnartzeko beharra sentitu duen gazte talde batek prozesu partehartzailea abiarazi du Gaztetxearendako berriro proiektu bat sortzeko asmoz.



Eider Ariznabarreta

Gazteak elkartzeko leku bat izan beharko litzateke, adin guztietakoak. Ez dakit zergatik, baina gazte asko ez dira sartzen orain. Eta eguna lokaletan pasatzen dugu, ia irten barik. Egundoko lokala da gainera, oso leku onean dago, eta gaur egun ez da aprobetxatzen. Eta bertan gauza piloa egin daitezke. Adibidez, kontzertuak egiteko Soraluzen dagoen leku bakarra da.



Etxi Deza

Nortasun bera gordeta, autogestionatuta eta Gaztetxea izaten segitu beharko luke. Gazteek kudeatuta, lehenago ibili garenon laguntzarekin, asanblea eran eta modu kolektiboan. Gai sozial eta politiko mordoak ditugu hitzaldiak, musika, eta beste antolatzeko. Pena izugarritzkoa ematen dit itxita ikusteak, kontuan hartuta 80-90eko hamarkadan (eta 2000ko hasieran) erreferente izan zela, bestelakoekin batera. Animo eta aurrera!

Eguzkia



Egilea: Eñaut Aiertzagüena



**Josune
Jauregi**

Aupera polita ikusten dut herri erdian dagoen lokal bati erabilpen anitza ematea. Nik, guraso moduan pentsatzen dut umeei begira hainbat ekintza egiteko aukera polita izango litzatekeela; haurren merendolak egiteko, adibide bat jartzearren.



**Arianne
Unamuno**

Polita litzateke amesten dugun mundu ederragoaren sorlekua izatea gaztetxea, herrian bere praktikarengatik erreferentea izango dena; herrian dauden gizarte mugimenduen bilgunea, sortzeko eta ekiteko gogoia dutenen topalekua, gozamenerako, hausnarketarako eta esperimentaziorako leku kolektiboa, elkarrekiko eta egiten denarekiko zaintzan oinarritua.



**Cris
Jacas**

Klik Eguna

Begiak zabaltzen ditut. Leihotik begiratzen dut eta ikusten dut eguzkiak ere babestuko gaituela. Ekainaren 8a da eta ilusioz beteta jaiki naiz. Gaur, tokatzen zait Durango eta Iruña lotzen dituen katearen zati izatea. Orain dela 4 urte izan zen hori. Gogoan daukazu? Gure Esku Dago-ren hasiera izan zen.

Aurten, 4 urteren ostean, keinu egin nahi diogu hasiera hari. Ekainaren 10ean Donostia, Bilbo eta Gasteiz lotuko dituen katearen parte izango naiz, Euskadi osoa zeharkatuz Legebiltzarreko atariraino erabakitzeke eskubidea eroango duen sinboloaren parte.

Baina ekainaren 10a ez da agendan apuntatuta daukagun egun bakarra. Aurretik, maiatzaren 12an, Klik Eguna ospatuko da herrian. "Klik" egiten du boligrafo batek idazterakoan, edo interruptoreak argia pizterakoan, edo buruak zerbaitez konturatzen denean. Egun horretan aukera izango dugu beste orri bat idazteko, etorkizunaren argia pizteko eta konturatzeke asko egin dugula, baina oraindik dena dagoela egiteko eta dena posible dela. Animatzen zara?

Eskolara oinez

Orain dela gutxira arte modu naturalean egiten zena, atzera ere natural izan dadin proiektua lantzen dihardute: Eskola Bidea. Izenak ondo adierazten duen moduan, ekimenaren helburu nagusia da Soraluzeko neska-mutikoak eskolara bide segurutik eta oinez joan ahal izateko aukerak bermatzea. Eta horren bitartez, umeen autonomia, haien ahalduztea, belaunaldien arteko harremana eta ohitura osasuntsuak bultzatzea.

ARGAZKIAK: **ESKOLA BIDEKO LANTALDEA** TESTUA: **UBANE MADERA**

Erosotasuna dela, beldurrak direla edo bestelako arrazoiak tarteko, gaur egun, gutxi dira eskolarako joan-etorria oinez eta bakarrik egiten duten neska-mutiko soraluzetarrak.

Datuen arabera, Plaentxi Herri Eskolako Lehen Hezkuntzako haurren %34,04a (haurren herena) bigarren mailan hasten da bakarrik edo lagunekin egiten eskolarako bidea. Bestela esanda, 7 urtetik aurrera hasten dira eskolara bakarrik joaten.

Horrez aparte, eskolako umeen %43,7ren gurasoek erantzundako inkestean arabera, 111 umeren artetik soilik 55 joaten dira oinez eta bakarrik eskolara, 39 joaten dira oinez eta heldu batek lagunduta eta gainerakoak autoan doaz. Horrek beste ondorio bat ere badakar: batez beste, egunero 30-40 auto joaten dira eskolara umeak eramatera.

Halaxe erakutsi dute Eskola Bidea ekimenaren lanketan batu dituzten datuek. Urtarrilaz geroztik dabilta egitasmo hori lantzen, Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzarekin eta herriko Hezkuntza Proiektuaren barruan. Hortaz, haurrei zuzendutako proiektua da Eskola Bidea, 6-12 urte bitarteko neska-mutikoei, alegia.

Eskola Bidea egitasmoa lantzen diharduen talde eragilean honako hauek dabilta lanean Udalarekin batera: Plaentxi Herri Eskola, Atxolin Guraso Elkarte, Kukumixo Aisialdi Taldea, eta egitasmoaren koordinatzaile modura, Hezkuntza Proiektuko dinamizatzaile Andoni Iñurritegi Urtxintxa eskolatik.





Plaentxi Herri Eskolako neska-mutikoe**k** bideetan aurkitu zituzten oztopoak edo trabak markatu zituzten eta 'isun moralak' jarri zituzten hainbat kasutan.



Egunero 30-40 bat autok egiten dute eskolarako joan-etorria umeak eramatera eta sarri txarto aparkatuta lagatzen dituzte

Lehen fasean dago orain ekimen hori: egoeraren diagnostikoa, bideen diseinua eta proba pilotua egingo dituzte. Diagnostikoari dagokion prozesua bukatu dute dagoeneko, diseinu lanak datozen asteotan egingo dituzte eta proba pilotua, berriz, ekainean.

Saioak eskolan

Hain justu, asteon aurkeztu dituzte diagnostikoaren ondorioak Herriko Antzokian egindako batzarrean, Atxolin Guraso Elkartereko, Udaleko eta eskolako ordezkariak eta hainbat guraso (oso gutxi) bertan zirela.

Diagnostikoa zein den ikusteko, bi ekintza egin dituzte eskolako umeekin. Hala esplikatu du Andoni Iñurritegik, Eskola Bidea egitasmoaren dinamizatzaileak.

1. Mapeo-saioak: otsailaren 19-23 bitartean egin zituzten. 14 saio, guztira, Lehen Hezkuntzako ikasgela bakoitzean saio bana. "Ezagutzeko ume bakoitzak ze bide egiten duen etxetik eskolara, eta bide horretan ze laguntza, ze puntu positibo aurkitzen dituen eta zerk sortzen dion segurtasun eza, beldurra edo non ikusten dituen arriskuak". Txikienekin marraztutako mapak baliatu zituzten

hori lantzeko, eta nagusiagoekin, berriz, benetako mapak.

2. Beldur eta arrisku saioak: "Gelan aipatutakoa kalean bertatik bertara ikusi, identifikatu eta markatu zuten". LH 4tik 6ra bitarteko ikasgeletan egin zituzten saio horiek, 9-12 urte bitarteko neska-mutikoeekin. "Adibidez, kolore desberdinetako klarionekin markatu dituzte oztopoak (espalo estuak, apurtutako eskailerak, txakur-usoen kakak...) eta ipini dituzte isun moralak txarto lagatako hainbat ibilgailutan, oinezkoendako egoera deseroso eta arriskutsuak sortzen dituztenen kasuetan haien gidariak hausnartzera gonbidatzeko helburuarekin", horixe adierazi digu Andoni Iñurritegik. Apirilaren 16tik 20ra bitartean egin dituzte saiook.

Trabak errepikatuta

Ondorioak bertsuak dira kasu gehienetan, hau da, ibilbide batetik bestera errepikatu egiten dira neska-mutikoe**k** identifikatu zituzten oztopoak: zirkulazio handia, txarto aparkatutako autoak, ikusgarritasun txikia, espalo estuak, txakur kakak, zebrabideak kasu batzuetan ia ikusezin eta kasu gehienetan autoak ez dira zebrabideetan geratzen herritarrak bertatik pasatzeko.

Hori guztia jakinda, Eskola Bidea egitasmoaren lehen faseko hurrengo puntua landuko dute: diseinua. Ondoren, proba pilotua egingo dute.

Espaloi estuak, zebra-bide ia ikusezinak, uso-kakak eta bestelakoak daudela ikusi zuten ikasleek bertatik bertara.



Eskola Bidea egitasmoaren azken fasea litzateke ekimena martxan jartzea, hori datorren ikasturterako aurreikusten da. "Behin diagnostikoa egin eta beharrak identifikatuta, eskolarako bide izan daitezkeenak proposatu eta ekarpenak jasoko dira, eta kontuan hartu ez den zerbait kontuan hartu behar bada, hori ere egingo da. Maiatzaren 26an aurkeztuko dituzte eskolara joateko bideak, proposamenak. Eta ekainean egin nahi den proba piloturako izen-ematea abiatuko dute orduan. "Hainbat bide proposatuko dira, bide horietan haurrak elkartzen joateko guneak zehaztuko dira, eta Kukumixoko hezitzaileek lagunduta joango dira haurrak eskolara, taldean. Ondoren, baloratuko da ea

proposatzen denak funtzionatzen duen, haurren eta familiaren beharrak asetzen dituen edo beste aldaketa batzuk beharko dituen. Helburua da datorren ikasturtean hastea Eskola Bidea ekimena martxan jartzen, baina gradualki. Proiektuaren oinarrian badago umeen autonomia areagotzea, beraz, asmoa da 6 urtetik aurrerako umeek aukera izatea eskolara bakarrik joateko. Argi dago baldintza batzuk hobetu egin behar direla eta familiek konfiantza edo ahalduntzeko zenbait neurri hartu behar direla. Beraz, hori ez da egun batetik bestera egin beharreko aldaketa, nahiz eta hurrengo ikasturtean ekimena martxan jarri, prozesuari jarraipena egin beharko zaio eta hainbat neurri hartu.

Txarto aparkatuta eta euren ibilbidea oztopatzen zuten ibilgailuen kasuetan 'isun moralak' ipini zituzten neska-mutikoeek, haren arrazoa autoaren jabeei esplikatzeko.



Helburua da datorren ikasturtean martxan hastea Eskola Bidea ekimena, poliki-poliki

Idealena da, eta datorren ikasturtean horretan jarriko da indarra, Eskola Bidearen proiektua denon artean lantzea eta hezkuntza komunitate osoa inplikatzeko, familietatik hasi eta herriko erdigunean presentzia nabarmena duten komertzioetarako. Inguruko herrietan (Bergaran, Elgoibarren...) ere badabilta egitasmoa lantzen, tokian tokiko ezaugarriekin eta ereduarekin". Hala esplikatu du proiektuaren dinamizatzaile Andoni Iñurritegik..

Aztertutako ibilbideak

1. Sagar Erreka-Sapa-zubi nagusia-eskola.
2. Ezoz bideko azken etxea-bidegorria-Arraikua-eskola.
3. Ezoz bideko biribilgunea-Gabolats-igogailua.
4. Olako zubia-Atxuriko parkea-Santa Ana-udaletxea-eskola.
5. Txurrukeneko azken parkea-Olako zubia-bidegorrirako igoera-Zeletako zubia-kanposantu aurrea-eskola.
6. Estaziño kalea bereziki aztertu dute, guztiek partekatzen duten gunea delako.

Alejandro Rodriguez Memorialak sei lasterketa izango ditu



Jose Luque eta Jokin Martinez herri krosaren kartela eskuetan dutela, Kalebarrenen.

Maiatzaren 20an korrikalariz beteko dira kaleak, 10:00etan hasita. Soraluze, Mugituz! ekimenaren baitan, I. Alejandro Rodriguez Memoriala Herri-Krosa estreinatuko da, eta adinaren araberako sei lasterketa egingo dira. Lasterketa luzeenak 10,5 kilometro izango ditu (17 urtetik gora) eta motzenak, aldiz, 300 metro (2010-2014an jaiotakoak). Tartean izango dira 5,6 kilometroko lasterketa (15 urtetik gorakoak, ez lehiakorra eta mistoa); 1.350 metrokoa (2004-2005) eta 700 metroko bi lasterketa, (2006-2007 eta 2008-2009).

Ibilbide motza eta luzea

Ibilbideei dagokienez, 300 metrokoak izan ezik, beste bost lasterketek hasieran ibilbide berbera izango dute: Zubi Nagusia-Gabolatseko zubia-kiroldegia-Gila. “Denok dute 700 metroko bukle hori. Eta nagusiek lehen buelta hori egiteaz gain, beste honakoa ere egingo dute: Zubi Nagusia-Ezozi bideko jolasparkea-bidegorria-Ola-Agarreko bidegurutze-Olako aldapa-Santa Ana eta Zubi Nagusia (2,4-2,5 kilometro). Hori horrela, 5,6 km-ko lasterketa da 700 metroko buelta

gehi buelta luzea bi bider, eta 10,5 km-ko lasteketa da 700 metroko buelta gehi buelta luzea lau bide”, esplikatu du Jokin Martinezek, ekimenaren antolatzaileetako batek.

Izen-ematea

Izen-ematea zabalik dago: lasterketa luzeetarako www.kirolprobak.com (5 euro da bakarkakoa eta 8 euro bikote mistoena) helbidean. Umeek eta gazteek, berriz, izena eman dezakete Soraluzeko kiroldegian (943 75 24 66) edo soraluzemugituz@gmail.com helbidean (euro bat).

“Soraluze, Mugituz! ekimenarekin nahi duguna da parekidetasuna, hondakinen murrizketa eta herriko kontsumoa bultzatu eta herriko bizitzari beste ekimen bat gehitzea, oro har. Adibidez, herri krosetako lasterketa mistoaren bitartez parekidetasuna bultzatu nahi dugu, ze bikote misto modura izena emanez gero, bikote misto modura helmugaratu behar da. Hortxe dago balioa. Horregatik da lasterketa ez lehiakorra. Asmoa da jendea horretara ohitzea, gero elkarrekin korrika egitera, entrenatzera... joan daitezen”.

Piraguismoa, arku-tiroa eta beste, III. Kirol Egunean



Maiatzaren 26an, zapatuan, egun osoko egitaraua prestatu dute aurtengo Kirol Egunerako: piraguismoarekin hasi eta raketisten partiduarekin bukatuko dute eguna, iluntzean. Honako egitaraua prestatu dute:

- 10:30-13:30 piraguismoa
- 11:00-14:00 arku tiroa plaza zaharrean
- 11:00-14:00 oreka tailerra plaza zaharrean
- 11:00-14:00 rappela erregetxen
- 12:30-14:00 zumba zubian
- 19:00 raketisten partidua kiroldegiko frontoian

Futbol 7 txapelketako zozketa

Maiatzaren 2an, martitzenean, egingo dute aurtengo Futbol 7 txapelketan izena eman duten taldeen zozketa, 19.30ean osoko bilkuren aretoan. Txapelketaren finala uztailearen 21ean izango da. Partiduak, berriz, azken urteotan moduan, Ezoziko Futbol Zelaian jokatu dira, zapatu goizetan. Futbol 7 txapelketa zazpigarren urtez egingo dute. Berez, txapelketa mistoa da eta noiz edo noiz emakumeek ere parte hartu izan dute; gehienetan, baina, bakarrik gizonezkoek parte hartu izan dute.

"Espainiako txapelketan 100 bat lehiakide izango gara"



Denis Soriano amuarrain bat eskuetan duela.

Euskadiko Izokinkideen Harrapaketan Euskadiko txapelduna da Denis Soriano (Aramaio, 1986) Lance arineko modalitatean, hil bako arrantzan. Martxoaren 27an eta apirilaren 7an jokatu zen txapelketa Araxes ibaian, eta han eskuratu zuen txapela, lehen aldiz. Horrek 2019ko Espainiako txapelketarako zuzenean sailkatzea ere ekarri dio Soraluzen bizi den aramaioarrari. Datorren urtera itxaron barik baina, aurten ere lehiatuko da Espainiakoan.

Noiz, non eta zela jokatu duzu Espainiako txapelketa?

Errioxan, ekainaren 28tik uztailaren 1era, Najerilla ibaian. Beste 100 bat lagunekin lehiatuko naiz. Lehiaketa egunean zozketa egingo dute, ibaiko tramuena. Eta lehiakideek arrantzatu eta epaile lanak, biak egingo ditugu, bi orduka txandaka. Beraz, bi ordu izango ditugu bakoitzak arrantzan egiteko. Harrapatutako arrainen kantitatea eta luzera baloratuko dituzte.

Talderen batekin lehiatuko zara?

Bi sailkapen daude: indibiduala eta taldekakoa. Ni bietan lehiatuko naiz. Taldeari dagokionez, Euskadikoan aurkeztuko naiz. Eta berau osatuko dugunak hemendik ekainera bitartean elkartuko gara, entrenatzeko. Najerilla ibaia

ikustera joaten eta bertan entrenatzen saiatuko gara.

Kide guztiak lehiatuko zarete?

Taldeko kideen artean aukeraketa egiten da, eta horiek izango dira ekiporako puntuatuko dutenak.

Aurtengo Euskadiko txapeldun izanda, baina, aukeratuko zaituzte, ala?

Maila altua izaten da. Eta lehenago Euskadiko txapeldun izandakoak ere joango dira, beraz...

Lehen aldia duzu Espainiako txapelketan?

Iaz izan nintzen; ikasteko esperientzia ona izan zen. Leonen.

Besterik nahiko zenuke esan?

Euskadin erreka oso politak ditugu eta zaindu egin behar ditugu. Gipuzkoako Foru Aldunditik markatu dituzte ibaietako tramu asko hil bako arrantza eremu modura. Soraluzen Deba ibai ia guztia jarri dute horrela. Hori ondo dago. Hala ere, oraindik gertatzen dira isuriak, eta horiek penagarriak dira, zianuroarena adibidez. Bestalde, orain ubarroi asko dabilta. Horiek arrain mordoa jaten dute eta min asko egiten dute. Itsas hegaztia izanik, daude kolonizatzen Pirinioak, Burgos aldea, Leon... Neguan amuarrainak ugalduta egiten direla aprobetxatzen dute.

Abian da Debarroko Pilota Txapelketa

Apirilaren 10az geroztik jokoan da Debarroko Pilota Txapelketa, eta bertan dihardute lehiari Soraluzeko Pilota Elkarteko sei kide, nagusien mailan: Aitor Atxotegi, Ibai Bolinaga, Iñigo Irureta, Gorka Santamaria, Ibai Kortabarria eta Manex Balerdi. Ekainaren erdialdera arte iraungo du Debarroko Pilota Txapelketa. Afizionatu mailan dagoen txapelketarik antzinakoena da berau, aurten 71. edizioa izango du-eta. Finalak, Arrasaten jokatuko dira. Azken lau urteotan Aitor Atxotegirik irabazi du txapelketa hori. Eta oraingoz ederki hasi du txapelketa, jokatuako bi partiduak irabazi egin ditu-eta.

14 bikote Asier eta Iñakiren omenezko txapelketan

Apirilaren 16an hasi zen Asierren eta Iñakiren Omenezko XVII. Pilota Txapelketa, 14 bikote lehiari direla. Uztailaren 7ra arte iraungo du, hiru fasetan: ligaxka, laurdenen finala eta finalerdia eta finala. 17. edizioa du aurten txapelketa horrek. "Urte guzti hauetan, pilota txapelketa honen bitartez, euskal presoek eta beraien senideek jasaten duten dispertsio politika hiltzailea salatu eta presoek elxeratzeari aldarrikatu dugu. Salaketa eta aldarrikapenez gain, giro herrikoia duen pilota txapelketa parte hartzailea dugu hau", adierazi dute antolatzaileek.

Zineman oinarrituko da Birakaren aurtengo ikuskizuna

Debarrenean dantza sustatzeko, erakusteko eta haiekin ikuskizunak antolatze elkarrekin da Biraka, eta maiatzaren 25ean, barikuan, egingo du Biraka Dantza Elkarteak ikasturte amaierako jaialdia, kiroldegiko frontoian, 22:00etan hasita. “Emanaldia ideia jakin baten bueltan antolatu ohi dugu urtero, aurtengoa Biraka Zinema da. Hori horrela, dantza askok zerikusia izango dute zinemarekin: ez badira zinemarekin lotutako musiketan oinarritutakoak, istorioren bat kontatzen duten dantzak izango dira, pelikulak izango balira bezala. Baina guztiak ere motzak izango dira, ze saiatzen gara emanaldia oso dinamikoa izan dadin, eten gutxirekin. Beste urte batzuetako saioetan oinarrituta, ikusi dugu jendeari asko gustatzen zaizkiola gure ikuskizunak ez delako batere aspertzin”. Hori jakinarazi du Josu Mujikak, Biraka Dantza Elkarteak zuzendariak.



Biraka Dantza Elkarteak dabilzan nesketako batzuk.

Soraluzeko 50 dantzari

Biraka Zinema ikuskizunak ordu eta laurden iraungo du eta 160 dantzari parte hartuko dute, batzuk 10 urte edo gehiagoan dantzan dabilzanak. Elgoibartik, Eibartik eta Mendarotik etorriko dira dantzariak, 6 urtetik hasi eta 45 urterainokoak. Eta haien artean izango dira Soraluzekoak ere, 6-10

urte bitarteko 50 bat dantzari. Hain justu, ikuskizunak izango dituen 18 dantzen artean bost egingo dituzte soraluzetarrek. “Iaz oso ondo funtzionatu zuen, eta espero dugu aurten ere berdina izatea. Iaz, bete egin zen kiroldegia”.

Ikuskizunerako sarrerak egunean bertan salduko dituzte, oso prezio herrikoian, 2-3 euroan.

Debarroko txistularien topagune bilakatuko da Soraluze

Maiatzaren 5ean Debarroko Txistularien Topaketa izango da Soraluzen; bestela esanda, Leintz Gatzagan hasi eta Mutrikurainoko txistularien arteko topaketa. 40 bat txistulari elkartuko dira, eta honako jarduna izango dute:

- 10:30ean kalejira.
- 13:00etan kontzertua, Plaza Zaharrean.
- 15:00etan bazkaria Txokon Domentx Uzin zuzendari dela egingo dute kontzertua. “Denetik piska bat joko dugu: habanera, baltsa, zortzikoa, Oskorriren pupurri bat...”.

Elkar ezagutzeko

Lehen aldia da Debarroko txistularien arteko topaketa egiten dela. Uzinekin esplikatu du arrazoia: “Gu Leintz bailarako Txistulari Eguna joan izan gara, Arrasatek, Eskoriatzak eta Aretxabaletak txandaka antolatu izan duten eguna. Gure Txistu-Dantza Eguna etortzen dira eurak, baina txistuaren eguna bakarrik egin nahi genuen, ze gu Debagoienara joaten garenean harrera bikaina egiten digute eta guk eurei ere halakoa egin nahi diegu. Eta pentsatu genuen zergatik bakarrik

Debagoieneko txistulariekin egin topaketa? Eta horrela, elkar ezagutzeko eta bailara guztiko txistulariak elkartzeko ideiarekin antolatu dugu topaketa hori”.

- Egitaraua honakoa izango da:
- Eibarko Kontrapasa (Kontrapasa)
 - Otzoal (Minuetoa)
 - Zorionak (Zortzikoa)
 - Txurkoene (Balsa)
 - Lexearna (Habanera)
 - Don Martin (Pasodoblea)
 - Oskorriren bilduma (Pupurria)
 - Ezozki (Fandangoa)
 - Arin-Arina 4819 (Arin-arina)
 - Atxolin (Biribilketa)

TXURRUKA JATETXEA

Sukalde tradizionala
Eguneko menua
Asteburuetako menu berezia
Karta

www.txurruka.com
Tel.: 943 75 15 81



ELIZPE HORTZ KLINIKA

Zure genetik hartz klinika, zure porta eta teknologiaz lan egiten dugu. Cal-Cam sistema berriak zure enbiziari dugu.

Elizburu, 3 behea
SORALUCE
Tel.: 943 75 25 67
e-mail: elizpe.h@gmail.com

Ordutegia:
Asteleheneretik ostiralera
10:00 - 11:00 eta 16:00 - 20:00



MABEL INBAPAINDEGIA

Reabilitazio keratina
tratamendua
Deglazioa
Re-aurtirik gabeko
permanentea
Makilajia
Manikura
entziraunkorra
Solarkuma

Erraboi 1
Tel.: 943 75 14 89



Ramon Lizarazu

ESKIO LABEL

Reinmendatzen
keratina
Euskal Oleria

ERRAMAL KALEA, 24
TEL. 943 75 91 30



OSUMA basolanak

11/UG. 635 71 34 08

baso garbiketarak eta entresakak
zortzi lagunekoa taldea zure zerbitzura



Jaietaren plazarrera, bertatik bertara

Batzoki

eguneko menua
asteburuetako
karta eta berezia

eguneko menua
eguneko menua
eguneko menua

Erreserbatu: 943 75 20 50



JUAN MARI ARRANDEGIA

ARRANDEGIA PLAZA - 943 75 24 40

Arria trinkoa
Etxera eramateko zerbitzua
Bakargatik hartzen ditugu



Soraluzeko Kooperatiba Elkarte
1910tik ezabak

Arrandegia, janaria,
errapak, etako tresnak,
etxera eramateko zerbitzua

Asteleheneretik ostiralera:
08:30 - 12:30 eta 17:00 - 19:45
Larunbatak: 08:30 - 13:00

Kalebarren 4
Tel.: 943 75 13 45



Hortz klinika

27 urteko esperientzia

Javier Alamo
Mediku Odonatologikoa
K.L. 46.001.504

Katia Guñe
Odonatologoa
K.L. 46.001.546

hirik gabeko anestesia,
odontologia orokorra,
gripes finke eta mugimena,
odontopediatria, ortodontia,
implanteak, estetikoa...

Erraboi 1 - Tel.: 943 75 16 13



IZZGUIRRE Igelzeritza

Erakiri berriak - Kalitateko emaitza
Erreforma - Era guztietako igelzeritza

30 urteko esperientzia - 610 638 913 - 649 967 289



KLB6

Kalebarren 6
943 67 21 20

Multzo-eta moden
modulagarria

!SOLID
VERO MODA



Kontulan
aholkularitza
ABOKATUAK

Errenta, zitapenak - Administrazioa lanak
Tratamendu buroikortza - Lan-erako aholkularitza
Erregimen kontuzio/lekuak - Kontabilitatea

Santa Ana 13 - 1. ed. 20190 Sorluze
Tel. 943 75 17 82 / Fax 943 75 01 82



MENDIZABAL okindegia
Ogia - Prentsa - Gosariak

Asteleheneretik ostiralera:
08:00 - 13:00
17:00 - 20:00
Larunbatak eta igandeak
08:30 - 13:15

Kalebarren 10
Tel.: 943 75 13 99



ARRANO taberna

Etxeri eta gozatu
etxeko gintxoak

Etxerburueta 6
Telefonoa: 943 75 24 09






Euskalzaletasunaren alde:



Isabel Moran Cañuelo

Ciudad Rodrigotik Soraluzera



Isabel Moran Cañuelo (1988, Ciudad Rodrigo) 2016an etorri zen Soraluzera bizitzera. Soraluzetar batekin ezkontuta eta 15 bat urtez Ciudad Rodrigon bizi eta gero, lan kontuengatik etorri ziren senarraren jaioterrira, eta harrezkero bertan bizi dira.

Maiatzaren 5ean ospatuko da Auzoko Jaia Soraluzen. Zu Auzokon ibilitakoa zara, ezta?

Orain dela urtebete hasi nintzen parte hartzen, baina orain euskaltegian nabilenez, gauza puntualak daudenean joaten naiz bakarrik: txalaparta tailerra, dantzarena...

Zure ustez Auzoko moduko ekimenak lagungarri dira kanpotik zatoztenedako?

Hizkuntza eta herria ezagutzen ez dugun jendea elkartzen gara bertan, eta herria, jendea, kultura eta hizkuntza ezagutzeko modu ona da. Horrez gainera, herrian egiten diren gauzak ezagutzen ere laguntzen du, adibidez, Gaztañerre azoka... Bestalde, etorri nintzenean uste nuen euskara oztipoa izan behar zela, baina ezta gutxiago ere, oso-oso erraz jarri didate guztia.

Zu zeu orain euskaltegian zabilta...

Bai, aurtengo ikasturtean hasi naiz, eta egia esan oso gustuko dut; irakasleak erraz ipintzen du guztia, eta gainera euskara ikastea gustatzen ari zait.

Hona etorri zinenean zelako irudia hartu zenuen Soraluzez? Eta orain?

Iritsi nintzenean iruditu zitzaidan herri txikia zela, gustuko nituen gauzak ezin izango nituela egin, baina konturatu naiz oso ondo kokatuta dagoela eta inguruan oso gauza politak dituela: San Andres eta mendi-gaina, adibidez. Oso berdea da. Salamanca, aldiz oso marroia da. Eta berdetasun hori oso gustuko dut. Ahal dugun guztietan ibilaldiren bat egiten dugu.

Zer igartzen duzu faltan?

Umea izatean jabetu naiz Soraluzen ez dagoela ekimenik eskolaratuta egoteko adina ez duten umeendako, parkean egotea besterik ez. Ciudad Rodrigon, adibidez, haurtxoendako antzerkia dugu, edo ipuin kontalariak... Gurasoendako hitzaldi gehiago ere eskertuko nuke.

Jaioterritik faltan gehien igartzen duzuna da...

Familia eta lagunak.

1. Isabel Moran familiarekin, Gaztelugatxe atzean dutela.
2. Isabel Moran familiarekin, Butroeko gazteluaren aurreko aldean.
3. Isabel Moran atzo, eguna,, jaioterrian..

Ate irekiak SORALUCEren XXL seriea aurkezteko

Bazkide, erretiratu, senitarteko, bezero eta hornitzaileen artean, 400dik gora pertsona elkartu ziren SORALUCEk martxoaren 10ean antolatutako Ate Irekien Jardunaldietan. Bertan, aurkeztu zen tamaina handiko osagarrientzat pentsatutako soluzioen gama berria.

Jardueraz betetako astea izan zen. Izan ere, aste horretan zehar, SORALUCEk XXL serie berria erakutsi zien 16 herrialdetako 120 enpresa baino gehiagori.

Hainbat lan prozesu ezagutzeko aukera izan zuten Bergarako instalazioetara hurreratu ziren bisitariek; pisu eta tamaina handidun osagarrien fresaketa, mandrinaketa eta torneaketako eskakizunak asetzera bideratutako produktu, teknologia eta soluziorik berritzaile eta eguneratuenen jarduna jarraitu ahal izan zuten.

Izan ere, SORALUCEk fresatzeko eta mandrinatzeko makinaren zein tornu bertikalen gama zabala eskaintzen du pisu handiko aplikazio, funtzio anitzeko soluzio eta sistema automatizatuetarako, doitasuna eta moldakortasuna eskainiz tamaina handiko osagarrien mekanizazioan. Soluzio horietako batzuk erakutsi ziren Open house-an:

- **SORALUCE PM 6000** makina, meatzaritza sektoreko osagarrien fresaketa eta mandrinaketa lanetarako.
- **SORALUCE FXR-W 20000** makina, 10m-tik gorako diametrodun tuneladoreen osagarriak fresatu eta mandrinatzera bideratua dagoena.
- **SORALUCE VTC 8000** torneatze bertikaleko zentroa, gas turbinen produktzioa eta mantentze lanetara bideratua.
- **SORALUCE FR 10000** piezaren lotualdi kopuru minimoa bideratzen duena mekanizazio ingeniarietako osagarrientzat.



SORALUCEko ate irekietara gerturatu ziren pertsonak.

Produktibitatea multifuntzioaren bitartez

SORALUCEk, erakutsi zuen multifuntzio erako teknologia ere, pisu handiko osagarriak aplikatzen zaiena. Funtzio anitzeko makinek handitu egiten dute produktibitatea konplexutasun teknikoaren duten piezen mekanizazioan. Makina indibidual bakarrak eskaintzen ditu hainbat ebaketa prozesu, besteen artean: torneaketa, fresaketa, mandrinaketa, zulaketa

eta hariztaketa. Horrek ahalbidetzen du tamaina handiko eta hainbat formako piezen produktioa efizientea egitea doitasunez.

Erakustaldiak zuzenean

Ate Irekien jardunaldietan zehar zuzeneko hainbat erakustaldi egin ziren, bai pisu handiko piezen mekanizazioari dagozkionak, eta baita SORALUCEren teknologia aurreratuen ingurukoak ere.



Makina bereziak SORALUCEko plantan.

'Oparitxoak' adin eta gustu guztietarako



Nuria Muro (Soraluze, 1976) Kilika denda izan zuenean (2012) brodatuak-eta egiten hasi zen umeen produktueterako, hori eskatzen ziotelako bezeroek. Dendan konturatu zen halakoak oparietarako saltzen zirela batez ere, eta horrela bururatu zitzaion bere produktuak aurkezteko izena: *Oparitxoak*.

Denetik egiten du: *chupeteroak*, *sonajeroak*, mantak, zaku terapeutikoak... Eta helduen eskariak tarteko, haiendako pitxiak eta osagarriak ere bai: "Belarritakoak, zintzilikarioak, kapazoak... eta transfer metodoarekin eta plantxa berezi batekin, gero eta produktu gehiago: norberak nahi duen marrazkiarekin poltsa, zaku... pertsonalizatuak, kuxinak jaioberriendako... eskarietara eta beharretara egokitzen ahalegintzen naiz".

Kilika itxi behar izan zuenean (2013) hasi zen buru-belarri eskulanak egiten. Orduan zabaldu zuen facebookeko orria. Eta orain Fanny mertzeria-dendan, Elgoibarko Agurtzane ile-apaindegian eta Instagramen ere eskura daitezke. "Eta azoketan. Soraluzekoetan ibili naiz" (...) "Enkarguz, umeendako gauzak eskatzen dizkirate gehien: mantak, panpin anti-kolikoak...

Azoketan, berriz, gehiago saltzen dira pitxiak, azokan ikusi ahal direlako".

Enkarguak facebooketik, whatsapppez, azoketan eta ahoz aho jasotzen ditu: "Kanpotik ere bai, adibidez, Legazpi, Bergara, Eibar, Elgoibar, Ermuatik... Madrildik ere jaso izan ditut. Hori bai, enkargu gehienak herritarrek egiten dizkirate".

Bestalde, materialak asko zaintzen ditu: "Umeendako egurrezko pieza guztiak homologatutakoak dira, Alemanian egindakoak, legeak betetzen dituztenak. Silikonazkoak, berriz, BPA bakoak dira; material toxikorik gabeak. Horrekin batera, segurtasuna oso kontuan izaten dut: adibidez, *chupeteroak* ez dira jostailuak eta asko zaindu behar da seguruak izan daitezen, ez dadin ezustekorik gertatu". Halaber, pitxiak egiteko materialak ere asko, bereziak izaten dira: "Harri naturalak, altzairu herdoilgaitza, zamak, harri bolkanikoak, swarovski kristala...".

Lan ugari egin arren, baina, Nuria Muro ez da bizi eskulanak egitetik: "Zaletasun moduan daukat; etorkizunera begira ez litzaidake inportako hortik bizitzea, baina ez da erraza".



1. Nuria Muro berak egindako eskulan batzuekin.
2. Helduendako lepokoak.
3. Umeendako eskulanak.
4. Zaku pertsonalizatua.

Harremanetarako:

655 73 08 52

Facebook eta Instagram

ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ

aurten
5 ehun
 baietz!!


Badakizu errenta aitortpena euskaraz egiteko aukera duzula? Eta euskaldunok euskaraz egiten ez badugu, zeinek egingo du ba?
 Euskaraz, zeure aukera da!



SORALUZERKO UDALA
 Hezkuntza Politikaren Batzardea



PIL-PILEAN



ERRENTA

2017



**Ignacio
 Zuloaga
 Institutua**



Aurrematrikula maiatzaren 2tik 14ra



ATE IREKIAK
 maiatzaren 3an
 18:00etan



Jardifeta 3 Eibar . Tel.: 943208349 . Fax: 943206048 www.ignaciozuloaga.net E-mail: 012055aa@hezkuntza.net

Aurea Etxaniz Beitia

Joan den mende hasieran emakumezko batzuek orduko gizarteko arauak eta pentsaerak irauli zituzten. Raketistak ziren. Uste da frontoian jokatzen zuten emakume haiek mundu mailako lehen kirolari profesionalak izan zirela. Eta horien artean soraluzetar bat ere izan zen: Aurea Etxaniz Beitia (Soraluze, 1922ko urriaren 4).

ARGAZKIAK: **FERNANDO ALBERDI** TESTUA: **UBANE MADERA**

Aurea Etxaniz Beitia osabaren eskutik hasi zen frontoian, esku-pilotan hasi ere. Jose Etxaniz zen Aurea Etxanizen osaba eta Azkoitiko frontoiko arduraduna zen hura. Alabari eta lobari, biei erakutsi zien pilotan jokatzen, Azkoitian; hain ondo eze Fernando Alberdik, Aurea Etxanizen lobak, etxean askotan entzunda duen moduan, “12 urte ingurura arte, ez zegoen Soraluzen inor, ezta mutilik ere, esku-pilotan Aureari irabaziko zionik”.

Pilotari primerakoa izanda, Aurea Etxaniz Beitiari parean tokatu zitzaion joan den mendeko hasiera hartan bizi izan zen testuinguru berezia: raketisten sorrera, haien gorakada eta kirol-mota horren profesionalizazioa.

1917. urtera jo beharra dago raketisten berri izateko. “Aurretik emakumeak pilotan jartzeko saiakerak egon ziren arren, Ildefonso Anabitarte enpresari donostiarrak neska gazteak eraman zituen Madriler eta han jokoan jarri zituen. Egurrezko raketa sendoeekin eta teniseko pilotarekin hasi baziren ere, berehala hartu zuten larruzko pilota. Frontoi txikietan abiadura ikaragarrian jokatzen zuten batere babesik gabe; espektakulua ziurra zen. Arrakasta lagun, frontoiak hedatuz joan ziren Espainiar Estatuan nahiz Ameriketean.



Las Palmasen jokatu zuen azkeneko partidua soraluzetarrak; argazkian kartel iragarlea.

Zabalkuntza horrek pilotariak eskatzen zituen, eta horrela sortu ziren raketa-eskolak.

Izatez ere, emakume tenistak dira kirolari profesional izan ziren lehen emakumezkoak. Baina tenistek hilean behin partidu bat jokatu eta horren truke dirua ematen zieten. Raketistak dira, berriz, kirola egitearren kontratua izan zuten lehen emakumezkoak. Espainian ziurtatuta dago horrela izan zela, eta adituen arabera, kontratu batekin munduan izan ziren lehenak ere izan ziren raketistak, baina hori zailagoa da seguru-seguru esatea”.

Halaxe kontaktu du Jon Juanesek, Raketistak Lehen eta Orain Kultura eta Kirol elkarteko kideak. Halaber, hark esplikatutakoaren arabera, izen bera duen dokumentala estreinatu zuten abenduan, “siltatsunean iraun duen” pilotari horien istorioa agerian jarri nahian.

Izan ere, gaur egun, emakume raketista profesional izateak aparteko arretarik eman ez lezakeen arren, joan den mende hasieran oso gauza ezohikoa zen, eta gainera, emakume aitzindari haiek Euskal Herrian gaizki ikusiak izan ziren, oro har, garaiko emakume

Aurea Etxaniz Beitia (goiko ilaran hirugarrena ezkerretik hasita) bestelako raketista batzuekin.
 Beheko argazkian, Aurea Etxaniz Beitia gaur egun, Caracasen, raketista moduan irabazitako garaikurrekin..


moldearekin bat egiten ez zutelako. Besteak beste, 15 urte ingururekin etxetik joan behar izaten zuten eta pilotan trebatutakoan dirua etxera bidaltzeko modua egiten zuten gehienek.

Halako arrakastatsu bilakatu ziren, ezen Euskal Herrian 41 udalerritan izan zirela raketistak, horien artean 28 gipuzkoarrak. “Ehunka emakume izan ziren raketista profesional Espainiar Estatuan nahiz Ameriketako Estatu Batuetan zabalduzako frontoietan. Eta gu erabat ezjakin izan gara. Raketisten gaia gordea egon da, sekretua bailitzan”, diote Raketistak Lehen eta Orain dokumentalaren aurkezpenean.


Raketista haien artean zen Aurea Etxaniz Beitia. Etxanizek 1942ean ekin zion jokoari eta Cusco izeneko enpresario batek egin zion lehenengo kontratua Sabadellen jokatzeko hasteko. Zazpi urteko ibilbide profesionala egin zuen Etxanizek, Espainiako hainbat frontoitan jokatu. Fernando Alberdi Lobak zera adierazi digu: “Sabadell, Logroño, Las Palmas de Gran Canaria eta Santa Cruz de Tenerifeko frontoietan jokatu zuen, eta azken horretan bere gizona izango zena ezagutu ondoren, erretiratu eta Caracasa joan ziren bizi izatera, 1948ko urtarrilaren 7an”.

Aurea Etxaniz atzelariak makinatxo bat partidu jokatu zituen zazpi urteko ibilbide profesionalan, harik eta Las Palmasen azken partidua jokatu zuen arte, 1948ko abuztuaren 18a zen. Ondoren, Caracasen urte hasieran senarrarekin abiatutako bizimoduari etsi zion eta gaur egun ere hantxe bizi da, alaba batekin.

Bada, Aurea Etxaniz bezalako kirolari profesionalen historia kontatzen duen dokumentala



Soraluzen ikusgai izango da. Maiatzaren 22an, martitzenean, Herriko Antzokian egingo dute emanaldia. Eta gero, zapatuan, maiatzaren 26an, partidu erakustaldia izango da, 19:00etan, kiroldegian. Punta-puntako kirolariek izango dira bertan, mundialak-eta jokatzeko dutenak. 8-10 bat pilotari dira, berez, paletarekin jarduten dute, beste batzuk eskuz eta trinketean ere aritze dira. Jo Juasesek zera azaldu digu: “Erakustaldiak egiten ditugu herriz herri eta garai hartan jokatzeko zuten material antzerakoarekin exhibizioak egiten dituzte. Partidua 30 tantotara izaten da. Tanto motzak izaten dira, palakoak baino motzagoak. Askoz ere biziagoa da”




Dokumentalari dagokionez, berriz, orain arte ikusi duten udalerritan “harrera ona” izan duela dio dokumentalaren zuzendariak bat ere baden Juasesek. “Nahiz eta ordu eta erdiko dokumentala izan, arina da, ez da astuna egiten. Desberdina da. Ilustrazioak azaltzen dira, eta umore puntua ere badu”.

ZORION AGURRAK



Oihan Larrañaga
Martxoaren 4an, 12 urte. Zorionak! Etxekoen partez.



Ioritz Aizpitarte
Apirilaren 2an, 35 urte. Zorionak! Etxekoen partez.



Andoni Calles
Apirilaren 7an, 42 urte. Zorionak! Etxekoen partez.



Maria Jesus Arrizabalaga
Apirilaren 17an, 73 urte. Zorionak! Etxekoen partez.



Ekain Larrañaga
Apirilak 21ean, 14 urte. Zorionak! Etxekoen partez.



Aitor Agirre
Apirilaren 27an, 5 urte. Zorionak! Etxekoen partez.



Eki Azkorbebeitia
Apirilak 11n, 3 urte. Maite zaitugu pitxin! Zorionak etxekoen partez!



Nahia Larreategi
Apirilaren 11n, 4 urte. Zorionak preziosaaaa, patxo handi bat etxeko guztion partez.



Oier Vaquero Agirre
Apirilak 15an, 6 urte. Zorionak txapeldun! Segi gure bizitza poztan. Muxu pila etxekuen partez!



Diana Helen Corrales Collarani
Apirilaren 23an, 14 urte. Zorionak! Askok maite zaitugu. Zure familiaren partez.




Urko eta Markel
Apirilaren 26an, 6 urte. Zorionak! Mundialak zarete! Pila-pila maite zaituztegu.



Teogenes Ruiz
Martxoaren 24an, 60 urte. Zorionak familia guztiaren partetik!



Xabi Lizarralde
Apirilaren 30ean, urtebetetzea. Zorionak Bitoriren, Enararen, Jonen eta Markelen partez!



Irune Varela
Apirilaren 22an, Zorionak, guapa! Patxo handi bat bihotz-bihotzez. Etxekoak.



Irati Oregi
Apirilaren 10ean, 6 urte. Zorionak printzesa eta muxu handi bat etxeko guztion partez!



Josune Jauregi eta Irati Ariznabarreta
Apirilaren 7an Iratik 3 urte, eta apirilaren 18an Josunek urteak betetzen dituzuelako. Zorionak!



Esther eta Bizente
Maiatzaren 14an Zorionak 63. ezkontza ospakizunean. Ondo-ondo pasa eta patxo handi bat familia guztiaren partez.



Joanes Jainaga Exposito
Maiatzaren 11n lau urte. Zorioooooonak Joanes!!!! Ondo ondo pasa!!!! Patxo bat danon partez!!!



Sugo Zubizarreta Revuelta
Apirilaren 11n, esku bete hatz. Segi beti bezain fenomeno!! Zorionak eta patxo demasak.



Zorionak Sabin!
Gurekin zare, zurekin gare. Sabin askatu. Sabinen lagunartea.

ESKELAK

OROITZA

**Pakita Unanue
Lete**

Apirilaren 17an hil zen, 89 urterekin.



Dotorea zentzu guztietan, beti egongo zara gure bihotzetan.
Aitxixakin zainduko gaitxuzu momentu denetan.

Maitxe zaitxuztegu!

Etxekoak

OROITZA

**Mari Jose Pérez
Dacosta**

2018ko apirilaren 16an hil zen.



Bat egiten dugu senideen saminarekin.

Plaentxi HLHI

JAIOBERRIAK

**Anje Elortza Ugalde**

Apirilaren 17an jaio zen.

HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

Hildakoak

Francisca Unanue Lete
Paulino Vazquez Rodriguez
Nicolasa Garcia Montalban
Eloisa Areitioaurtena Lazpita

Jaiotakoak

Anje Elortza Ugalde
Lur Azkorbebeitia Soria

BOLIA
TABERNA



Piribok, ardoak,
kordintzuk
Gazte-giroko festa



AURREZTU ENERGIA



Berotu ura eguzki izpiekin
edo airearekin

fontaneria
Sandra
iturgintza

639 179 696 • sandresiturgintza@gmail.com

Txoko



Eguneko menua,
plater konbinatuak,
hamburgerak,
ogitartekoak,
radioak,
piztutak,
gotaria...

Erkarituak egiten dira
Tel. 943 75 17 68

TXURITXU GOZOTEGIA

Azuleheretik ostiralera:
08:30-11:00 eta 16:30-20:30

Larunbata: 08:30-13:30
Igandeak: 08:30-14:30



Gosariak, oja,
gremia, pastinak,
bonboak...
Euzera eramateko
zerbitzua

Tel. 943 75 24 43

TATTOO ESTUDIO ARTISTIKOA

INBIRU

Baitzale eta 16. SORABALEZ (Gipuzkoa) Tel. 9437725403 www.inbirtatugeta.com

Ateak zabalik jardunaldia

Maiatzaren 17an
18:30ean

Erdi-Mailako Heziketa zikloak

Mekanizazioa

Administrarritza Kudeaketa

Instalazio Elektriko eta Automatikoak

⊛ “D ereduan matrikulatutako ikasleek, behin heziketa-zikloa amaituta, Euskararen Tarteko Maila (B1) titulua lortzen dute.”

Goi-Mailako Heziketa zikloak

Fabrikazio Mekanikoko Diseinua

Automatizazioa eta Robotika Industrialia

Administrazioa eta Finantzak

Mekatronika Industrialia

Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa

↳ (Ziklo hau Eskaintza Partzialean egiteko aukera: Zure kualifikazio maila hobetu nahi baduzu eta ohiko ordutegia bete ezin baduzu, heziketa ziklo hau moduluka egiteko aukera duzu).

⊛ “D ereduan matrikulatutako ikasleek, heziketa-zikloa amaituta, Euskararen Goi Maila (B2) titulua lortzen dute.”

Goi-Mailako ziklo eleanitzak ingelesez ikasteko aukera.

Espezializazio Programa

Forjaketa Prozesuen Diseinua eta Ekoizpena
lanbide-espezializazioa

Aukera bat baino gehiago!

- **Labide Heziketa DUALa:** ikasketak ikastetxean eta enpresan txandakatuz burutzeko aukera.
- **ETHAZI Metodologia:** Erronketan oinarritutako Etekin Handiko Zikloak.
- Arratsaldez Ingeleseko errefortzu klaseak doan.
- Langile eta langabetuentzat ikastaroak.
- Eskaeren araberrako formazioa neurrirra.
- **Erasmus+.** Praktikak Europan egiteko aukera.
- Ikasle eta ikasle-ohientzat **lan-poltsa** zerbitzua.
- Orientazio zerbitzua.

www.maltuna.eus

Miguel Altuna Lanbide Heziketa

• Ibargarai 1, 20570 Bergara-

TEL.: 943 762 491 | 943 763 840 | info@maltuna.eus